



**IZA, Iban**  
**Ikastola mugimendua, dabilen herria:**  
**ikastola eredia (1960-2010)**

Bilbao: Euskal Herriko Ikastolak.  
 Euskaltzaindia, 2010.  
 327 or. : ir. ; 24 cm.  
 ISBN: 978-84-95438-64-5

2010eko irailean, Iruñean, ikastolen erakunde gorena den Ikastolen Elkarteak, Euskaltzaindia lagun zuela, honen Jagon sailaren barruan, "Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredia (1960-2010)" izenburua duen liburua argitaratu zuen, euskararen lurralde historiko guztietara hedatu zen hezkuntza euskaldunaren lehen eskola-ekintza antolatua berrogeita hamar urte bete dituela eta.

Pasa berri den mendean zehar ekonomian, politikan, zientzian, teknologian, ideologian edota soziologian izan diren gertaera historiko nagusiei buruz mendebaleko egungo gizarte askori gertatzen zaienez, euskal herritarrei ikastolak noiztik diren galdetuz gero, askok eta askok, gehienek ez esateagatik, euskal lurraldeetan eskolak diren garaietatik ikastolak izan direla adieraziko dute, ikastolak "beti" izan direla uste baitute, ez dakitelako berrogeita hamar urte besterik ez dituen ibilaldia ikastolek burutu dutela. Izan ere, XX. mendearen lehen erdiko jauzika egindako saiatzeen ostean, hots, Azkuek, Muñoak, Euzko Ikastola Batzak eta Elbira Zipitriak ekindako saioen ondotik eta hauek helduleku izanez, gaur egun eta euskal lurralde guztietan ezagutzen den ikastola mugimendua abian jarri baitzen 1960an.

JAKIN kultur aldizkariak, 1972an, monografiko batean, bere 6. zenbakian, hasierako lehen ikastola haiei buruzko ezaugarri esanguratsuenak bildu zituenetik, hezkuntza euskaldunaren lehen eskola-ekintza antolatua abian jarritako mugimendu honi buruzko ikerketa lanak ugaldu diren arren, zenbait doktoretza-tesia barne, ikastola mugimenduz ikuspegi holistikoa eskainiko lukeen azter lanik eza nabaria zen, harik eta Ikastolen Elkarteak "Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredia (1960-2010)" argitaratu duen arte. Kutsu akademikoa zukeen lana egin ordez, Ikastolen Elkarteak liburuaren prentsaurrekoan adierazi zuenez, edonolako publiko interesatuari zuzendutako produktua lortu nahi zuen, hartara, ikastolen historia sozialarekin zerikusia zuten datuak, gertaerak, lekukotzak eta aburu kontrajariak eskura jarri dizkio irakurleari.

Ikastolen historia sozialari buruz zegoen hutsunea beteko zukeen ekarpina egite aldera, Ikastolen Elkarteak EREITEN enpresarekin horrelako lana egiteko enkargua hitzartu zuen, eta egile nagusi Iban Iza izan du. Ikuspegi orekatu eta zorrotza eskaini du egileak, eta Ikastolen Elkarteak eskatutako estiloan idatzia da, dibulgazioa xede duen diskurtsoaz josia, komunitate zientifikora zuzendutako argitalpena egin ordez herritarrei bideratutakoa. Ikerketalana egindako garaian bizirik zeuden lekukotzak, pertsonak eta eragileak elkarrizketatu ditu Izak, iturri idatziak baliatu ditu gertaerak eta giltzarri-uneak uztartzeko eta, bereziki, betiko bibliografia ezagunarekin batera, hor nonbait barreiatuak zeuden dokumentu, artikulua, ikerlan eta bestelako idazlanak bildu ditu azken orrialdeetan agertzen den erreferentzia bibliografikoan.

Testuak zortzi atal nagusi ditu mamia antolatzean, alegia, ikastola mugimenduaren historiari egiten dituen narrazio eta interpretapen desberdinei dagokienez. Zortzi kapituluak dute sailkapen motak berak, kronologiaren eraketa eta urte horietan gertaturikoa ikusteko era kondentsatzen du. Kapitulu bakoitzari ezarri zaizkion izenburuak ikustea besterik ez dago.

Lehen atala, 'Aurrekariak' deiturikoa, oso laburra da, oso, ia-ia telegrafikoa, hamar

orrialde besterik ez ditu hartzen. Bi azpi-ataletan banatuta dago: XIX mendean eta XX mendean hasieran hezkuntza euskaldunak izan zituen lehen eskola-ekintza solteak aipatzen ditu lehenean; eta pasa den mendeko erdialdearen lehen urteetan izan ziren berpizte-saioak seinatzen ditu bigarrean. Bai batean, bai bestean, gertaera nagusiei buruzko sintesi-adierazpenek islatzen dute hurrengo atalaren atari izatea.

Bigarren atala, 'Ikastolen sorrerak (1959/60-1969)' izenburua duena, birritan irakurtzeko modukoa da, mitifikazio oro baztertuta, egileak, ikastola mugimendua sortu zeneko urte haiei buruzko gertaeren narrazio hutsa eta interpretapen arinak egin ordez, ikastolak sortzeko zio eta era anitzak hogeita hamar orrialdetan zehar biltzen ditu eta behin ere egin ez den ikuspegiak. Hartara, bereizi egiten ditu Espainiako eta Frantziako egoerak, azpimarratu egiten du ikastolak sortzeko garaian herritarrek bizi zuten garapen ekonomikoaren garrantzia, ikastolen izaera urbanoa, kaletarra, euskal lurralde batetik bestera izan ziren sorrera desberdinak... Bigarren atal honen azken orrialdeak, bestalde, hasierako ikastolen ezaugarri komunak, eta garaiko ikastetxe publikoekiko eta pribatuekiko bereizten dituztenak, jasotzen dira oso era sintetikoan eta esanguratsuan. Bertan, hezkuntza-proiektuari zegokion ezaugarri bilduma, proiektu hori kudeatzeko antolaketa-eredua eta ikastolen arteko lehen elkarteak, Ikastola Batzordea deiturikoa, jasotzen da.

Hirugarren atalean, 'Bakantasunetik batasunera (1969-1978)' leloa duenean, egileak hogeita hamabost orrialde baliatzen ditu ikastola mugimenduaren barruko sendotasuna lortzeko egin ziren lanen bilduma deskribatzen, ibilbide horretan izandako tira-bira ideologikoen zehaztasunak eta hauen zergatiak azaltzen eta aztertzen, estatu espainolaren eta frantsesaren aldetiko legeztatze presioak identifikatzen, ikastolen federazioen sorrera eta hauen eginkizun nagusiak agertzen, ikastolen aldeko lehen festak (Kilometroak eta segidakoak) zergatik eta nola antolatu ziren adierazten eta, bereziki, ikastola mugimenduaren hezkuntza-proiektuaren zimentarria bihurtu zen ikas material propioak sortzearen nondik norakoak islatzen.

Laugarren atalak, 'Ikastola ereduaren garapena (1978-1987)' titulua duenak, berriz, ikastolen arrakasta sozialaren ondoriozko normalkuntzaren aldarrikapena jorratzen du. Egileak orrialde kopurua bere jardunerako handitua du, berrogeita hamabi orrialdez aritzen baita sasoi hartako xehetasunak aletzeko. Ikastola mugimendua hiru ibilbide desberdinetan, Frantziako gobernuarekiko harremanetan, Nafarroako gobernuarekiko joan-etorrietan eta Gasteizeko Eusko Jaurilaritzarekin izandakoetan, zertan, zertarako eta zelan aritu zen zehazten da. Horien artean, aparteko lekua hartzen du idazlanean EIKE proiektuari buruz egindako saioa eta honen segidan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastolek egin zuten gogoeta eta honek ekarri zuen emaitza. Atalaren azken azpi-atalak, 'Ikastola hezkuntza-proiektua osatzen' izen esanguratsuan pean, aurreko fasean abian jarritako ikas material propioaren ekoizpenaren fruitu izan ziren proiektuak (Oinarri, Haurtxoa, bertsolaritza eta bideogintza) aztergai ditu.

Bosgarren atala, 'Ikastola ereduaren sendotzea (1987-1992)' izenburukoa, ikastolen adin nagusira heltzearen garaiak eta gertaerak jasotzeko eta aztertzeko saioa da. Normalkuntzaren alde aurreko urteetan ikastola mugimenduak egindako lanaren ondorioz, bereziki Ipar Euskal Herriko lurraldeetan eta Euskal Autonomi Erkidekoetan buruturiko ahalgintzaren poderioz, lehen akordio politiko sakonak erdietsi eta hauen inguruko kudeaketa-gorabehera politikoak zehaztasun handiz agertzen ditu egileak, ikastolak plaza erdian toki hartuta zeudelarik haiek Iruñean egin zituzten I eta II Batzarrak testuinguru bizi hartan kokatzearekin batera. Atal honek, aurrekoan bezala, aparteko espazioa ematen dio ikastolen hezkuntza-proiektua sakontzeko ikastolen Elkarreak egindako lanari eta horren lekuko dira atal honen azken bi azpi-atalak, bat 'LOGSE eta ikas material berriak' deitu duena eta bestea 'Elebitasunetik eleaniztasunera' izendatu duena. Atal osoak, aurreko atalak adina orrialde hartzen ditu, berrogeita hamabi, hain zuzen ere.

Seigarren atala da luzeena, 'Krisitik ikastola ereduaren hedapenera (1993-2009)' leloa du eta aurreko bi atalekin batera ikerlan osoaren ekarpen kualitatiboa dena. Hirurogeita hamabost orrialde hartu ditu idazleak egun ezagutzen den ikastola mugimenduaren errealtatea ulertzen lagundu dezakeen garaia eta honen baitako gorabeherak agertzeko. Egileak

baliatu duen dokumentazioa, iturri zuzenak eta orain arte aipatu gabe zeuden zenbait, egin dituen elkarrizketak eta hauetan islatzen diren lekukotza gordinak, solaskideen arteko ikuspegi desberdinak, hainbatetan buruz buru kontrajarriak, Ikastolen Elkartearen barruan izan diren solaskide desberdinek adierazten dituzten iritzi antagonikoekin batera horiek beraien hirugarren batzuen aurrean agertzen zituzten jarrera eta jokabide bateratuak... liburu honen altxorra dira, kazetaritza-lan sakon baten itxura duena. Lau azpi-ataletan banatuta egon arren, hiru gai erraldoi jorratzen ditu: ikastolak beren normalkuntza administratiboa (Parisen, Iruñearen eta Gasteizen aurrean) eskuratzeko ahaleginean izandako porrotak eta arrakastak agertzen dituen gaia, batetik; ikastola ereduaren euskaldun hezkuntza-izaera berritzailea garatzen jarraitzeko hartutako erabaki kolektiboen gaia, bigarrenez; eta ikastola mugimenduaren antolaketa kolektiboa, lurraldeetako, federazioena, nazionala, konfederazioa... erabakitzeko eztabaidaren gaia, azkenik.

Zazpigarren atalak 'Ikastolen hezkuntza-proiektua' izenburua du eta hogeita hamabi orrialdez egileak bildu ditu ikastolen I+G+B egitasmoaren muina eta honen jira-biran diren proiektu nagusiak (euskal curriculum, hizkuntz proiektua, ikt proiektua, prestakuntza proiektua, ikas materialgintza eta jokogintza proiektuak, bertsolaritza irakaskuntza proiektua, Xiba eta Aisia proiektuak). Hauen guztien ezaugarriak laburbiltzen dituzten testuak interesgarriak izanik ere, esanguratsua guztiz da hirurehun eta zazpigarren orrialdean islatzen den grafikoa, bi mila eta bederatzigarren urtean ikastolen erakunde kolektiboek (Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroako eta Seaska ikastolen federazioak, Euskal Autonomi Erkidegoko Partaide elkarteak eta Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa) zituzten langile kopuruak eta aurrekontuak jasotzen dituen, hain zuzen ere, horrek ematen baitu berrogeita hamar urteko historia sozial honen buruan ikastola mugimenduaren argazki indartsua. Atal honen azken azpi-atalak 2008 eta 2009 urteetan zehar ikastola guztiak, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioak gidatuta, egin duten eztabaida eta erabakitze-prozesua zehazten du, 2009ko urtarrilean eta ekainean ikastolen VI Batzarrak gorpuztu zuena, alegia, eta ikastola mugimenduaren etapa berria irekitzeko asmoz antolatuta zena.

Zortzigarren atala, azterketaren azken narrazioa da, eta bere titulua 'Ikastola eredia, 50 urteko gizarte-berrikuntza baten adibidea' da. Hitz kopurutan liburuaren atalik laburrena izan arren, bost orrialde besterik ez baititu hartzen, arrunt mamitsua eta interesgarria da. Berrogeita hamar urteotako atzerako begiratuan ikastola mugimenduak erakitakoaren kategorizazioa egiten da atal honen hasieran, ikastola mugimendua eta berrikuntza soziala elkartuz, behin ere inork iraganean egin ez duen moduan eta, hartara, berrikuntzaren kontzeptua birdefinitzen ari diren ikerlari eta adituen planteamenduak ikastolen kasura ekarriz.

Ikastolen Elkartek bere adierazpenetan agertutako asmoa, hots, ikastola mugimenduaren historia soziala jasotzen zuen lana egin gabe zegoela eta, hutsune hori betetzeko gogoia bete duela esan daiteke, Iban Izak egin duen "Ikastola mugimendua. Dabilen herria" lanean, bai ikastola oso azaletik ezagutzen duen irakurleak, baita aditua ere, ikastola mugimenduaren ikuspegi osoa aurkituko baitute. Bestalde, eta honatx liburu honen beste ekarpena, orain arte jakinak ziren datu askorekin batera behin ere jaso gabe zeuden gertaera, adierazpen, lekukotza zuzen eta ikuspegi desberdinak begi aurrean izango ditu irakurleak.

Polemikarako aukera eman dezakeen aspekturik ere bada, ikerketan sakontzeko ere bai, berrogeita hamar urteotan zehar ikastola mugimenduaren dinamismoak, dinamika horren eragile izan diren pertsonak, hauekin aritu behar izan diren erakundeek eta erakundeetako agintariek, eta herritar jarduera eraginkorrenetarikoa izan den aldetik gizarte osoak, ez baitute apenas ezer utzi astindu gabe. Ikastola mugimenduaren barruko eta kanpoko ibilbidearen berri ematen duen txosten zabala eta zehatza da, beraz, eta euskal herritarren ibilbidearekin batera egindako jarduna agertzen saiatu eta lortu duenez gero, horregatik, argitalpenaren izenburuaren zati bat, hots, "Ikastola mugimendua. Dabilen herria", liburuaren mamiarekin bat datorrela baieztatu daiteke.

Baina bada besterik ere, iraganeko kontaera eta azterketa argudiatuarekin batera, guztiari corpus bat eman nahi dion oso ekarpen garaikidea baitago tartean. Hain zuzen, liburuaren zortzigarren kapituluak, "Ikastola eredia, 50 urteko gizarte-berrikuntzaren adibidea"

izenburukoak, arrunt era kondentsatuan eskaintzen duen mamia oso lotuta dago izenburuarekin, eta bertan Ikastolen Elkarrekin azken hamarkada honetan bere idazkietan argudiatu duen tesia jasotzen du, hots, ikastolak eredu bat direla dioen tesia, euskal hezkuntzaren eskola-ekintza eta gizarte-ekintza garatzen dituen eredu propioa eraiki dutela, alegia, Espainiako eta Frantziako estatuak jabe dituzten ikastetxe publikoetatik berezia, baita Elizako orden erlijiosoak edota Gotzaitegia bera titular dituzten ikastetxe pribatuen betiko eskola-eredutik berezia, hau da, Espainiako eta Frantziako hezkuntza-sistemen osagai historiko nagusi eta bakarrak izan diren bi eskola-ereduen pareko eskola-eredu desberdina. Liburuaren azken kapituluak egiten duen kondentsazio horren ildo berean planteatzen da ikastola bakoitzak eta ikastolek, hots, ikastola mugimenduak, hezkuntzaren eta hizkuntzaren muga hutsak eta soilak gainditu dituztela eta gainditzen jarraitzen dutela, eta gertaera sozial oso bat bihurtzera heldu zirela eta gaur egun hala izaten segitzen dutela.

Ikastola mugimendua aztergai izan duten pedagogia arloko aditu batzuen lanetan proposatu eta argudiatu den tesiaren gertukoa izan bada ere, "Ikastola ereduak, 50 urteko gizarte-berrikuntzaren adibide" kapituluak lan haiek azken boladan osatu eta sakondu izan dituzten EHUKo soziologia eremuko ikertzaileen aldetiko ekarpenen bilduma eskaintzen du, eta honen ondorioz ikastola ereduaren marko kontzeptuala aberasten du. Hain zuzen ere, M. Masa ikertzaileak ikastolei buruz egin duen kasu-azterketa aipatzen da hain mamitsu den zortzigarren kapitulu horretan eta bertan liburu argitaratu berriak dakar haren konklusio nagusien laburpena. Zehatz-mehatz dio ikastola mugimendua gizarte-berrikuntzan adibide dela, adibide paradigmaticoa, honako bost arrazoi hauengatik: (1) Gizartean eta herritar jendearen artean sortu direlako, (2) Hezkuntzan, eskola-bizitzan eta gizartean ordura arte ez zegoen esanahi berri asmatua eranstean diotelako euskarari, (3) Egitura politikoak eta sozialak betetzen ez zituen gizarte-eskaera baten erantzun herritarra direlako, (4) Hezkuntza-jardueran, gizarte-ekintzaren zioak, egitasmoak eta balioak planteatzen eta gauzatzen dituztelako, eta (5) bereziki, guztiz berritzailea den heinean, publiko eta pribatuaren arteko bereizketaren aurrean hirugarren formula osatzen dutelako, publikoa, pribatua eta gizarte/herritarra den hirutasun batean oinarritzen den ereduak, horrenbestez. Finean, hirugarren espazio bat, hezkuntzaren eskola-ekintza egiteko, ulertzeko eta praktikatzeko eredu berri bat.

*J. Iñaki Etxezarreta Alberdi*